

GIG 28

ITZURUN HONDARTZA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,25**
 BALIAGARRITASUN-MAILA: **4**
 KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Itzurun hondartza bi hormatzarren artean sartuta dago, eta hondarrezkoa da: Talaimendi du ekialdean, eta mendebaldean, berriz, Algorri lurmuturra. Hondartza sortu izanean eta bertako sedimentuen kokapenean eragin zuzena dute itsasbazterren siluetaren kokapenak nahiz hura osatzen duten estratuen norabide eta okerdurak, eta jakina, olatuek egiten duten garraio-lanak.

Algorri lurmuturrak (NW-SE norabidekoa) eragin egiten du olatu erasotzaileetan, eta horren eraginez, ondoren, itsasertzeraz zeharka datozen olatu-trenei errefrakzio- eta difrakzio-prozesuak gertatzen zaizkie. Itsasertzera iristen diren olatuek hondartzan mendebaldetik ekialdera garraiatzen dute sedimentua, sigi-saga, edo zehatzago esanda, *itsasbazterreko jito* deritzon moduan.

Hondartzako sedimentuaren osagai nagusia kuartzoa da, eta hurrena, itsas organismoen zatiak (bioklastoak) eta itsaslabarreko arroka-zatiak (litoklastoak). Eta hondar horrek sedimentu-pilaketak ditu jatorri; hain zuzen ere, hondartzatik gertuko itsas eremuan urpean dauden sedimentu-pilaketak.

Olatuen indarra eta altuera, baina, asko aldatzen dira urtaroaren arabera (indar handikoak eta ordenatuak izaten dira neguan, eta udan, aldiz, indar gutxiagokoak eta sakabanatuak), eta urtean zehar hondartzaren profila aldatuz joatea ekartzen du horrek; udaldian, adibidez, handiagoa izaten da sedimentu-pilaketa. Bestalde, marea-bitarteak eta olatu erasotzaileek ere badute eragina urtean zehar hondartzaren profila aldatze horretan.

NOLA BERTARATU

Oinez, Zumaiatik.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ, Algorri lurmuturra edo Talaimendi.



Itzurun hondartza, Algorri lurmuturretik ikusita.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
 X= 559962 m / Y= 4794390 m / Alt.= 2 m



Itzurun hondartza, Talaimenditik ikusita. Argazkiaren erdian ageri den brankada horrek horma gisa jokatzeko du.